

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gaur hasiko da pintura-lantegia Antonio López, José María Mezquita eta Juan José Aquerretarekin

Nafarroako Unibertsitateak antolatutako udako ikastaro hau abuztuaren 8tik 12ra bitartean egingo da

Lunes, 08 de agosto de 2011

Antonio López –Asturiasko Printzearen Arte Saria 1985. urtean eta Arte Plastikoen Velázquez Saria 206an—, José María Mezquita –Arteen Gaztela eta Leon Saria 2006. urtean— eta Juan José Aquerreta –Vianako Printzearen Kultura Saria 2003an— pintoreek aste honetan emango dute ‘Figurazio maisuak’ pintura-lantegiaren seigarren edizioa, Nafarroako Unibertsitateak Nafarroako Unibertsitateen XI. Udako ikastaroen barruan antolatua. Ikastaroak Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentuaren bidez, eta Iruñeko Udalak finantzatzen dituzte.

Guztira, 33 ikasle izango dira ikastaroan, abuztuaren 8tik 12ra bitartean, goiz eta arratsalde, Nafarroako Unibertsitateko Arkitektura eraikinean. Bertan, tradizio figuratiboko generoak landuko dituzte; esate baterako, natura hila, gizakiaren irudia —ereduak naturalean— edota paisaia. Parte-hartzaileak irakasleek hautatu dituzte haien maila teknikoaren eta curriculumaren arabera.

Lantegiari gaur (astelehena) emango zaio hasiera, eta, hasteko, Zabalguneko merkaturako bisita tradizionala egingo dute, eskoletan natura hila osatzeko eta margotzeko erabiliko dituzten frutak eta barazkiak erosteko.

Asteazkenean, uztailaren 10ean, Nafarroako Museoan emango da "San Adriango Markesari" buruzko eskola; hots, Francisco Goyaren helduaroko erretraturik onenetarikoaren ingurukoa. 20:00etan, berri, museoan bertan, mahai-ingurua eskainiko da jende guztiarentzat, eta pintoreek beren pintura-ikuspegiak, lan egiteko moduak eta lantegian sortutako beste kontu interesgarriak aztertuko dituzte.

Izen handiko pintoreak

Antonio López pintoreak ematen du 'Figurazio maisuak' izeneko pintura-lantegia 2006az (lehen edizioa) geroztik. Artista hori Espainiako errealismoko ordezkarietariko bat bezala hartzen da. Datorren urriaren 27an Honoris Causa doktore izendatuko du Nafarroako Unibertsitateak.

Antonio Lopezen dizipuluetariko bat da José María Mezquita, lantegiko irakaslea ere izango dena. Espainiako figurazioko pieza gakoa

da. Haren obra errealitate gertuenaren behaketan eta azterketan oinarritzen da; Zamora jaioterriko paisaiak edo espazio urbanoak margotuko ditu.

Azkenik, Iruñeko Juan José Aquerretak 2001ean jaso zuen Arte Plastikoen Sari Nazionala; 2003an, berriz, Vianako Printzearen Kultura Saria eta, 2005ean, Tomas Caballero Saria 'Romper la vida. Muerte y desamparo' eskulturarengatik. Lan horrekin terrorismoko biktimak gogoratzen ditu.